



EBAZPENA (09/2011 esp., GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALA)

Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 9a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta María Pilar Canedo Arrillaga andrea txostengile dela, ebazpen hau egin du GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALA gaiari buruzko 09/2011 zehapen-espeditentean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzzaileen Elkargo Ofizialak ustez egindako lehia murrizteko jardunbideen ondorioz.

AURREKARIAK

1. 2011ko maiatzaren 17an, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA) igorritako idazki bat iritsi zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (LDEAZ) erregistrora. Idazki horren bidez, GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALAK



beharbada Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen kontrako jokabide bat erakutsi zuela jakinarazi zen ofizioz.

Lehiaren Defentsari buruzko Legearen kontrako ustezko jokabide hori Dekorazio Lanen Proiektuetako eta Zuzendaritzako Goi Mailako Teknikariaren Titulua (1464/1995 Errege Dekretuaren bidez arautua) duten pertsonak elkargoko kide egiteko aukera ez onartzeko jokabidea izan da, hain zuzen ere.

2. 2011ko maiatzaren 18an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, dagoen dokumentazioaren kopia eta ohar labur bat igorri zizkion Lehiaren Batzorde Nazionalari, lehiaren defentsarako euskal organoek espediente hau izapidetzeko zuten eskumena adieraziz.

2011ko maiatzaren 31n, Lehiaren Batzorde Nazionalak EAEko lehiaren defentsarako agintaritzaren eskumena onartu zuen.

3. 2011ko maiatzaren 31n, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak ebazpena eman zuen eta, horren bitartez, informazio erreserbatuaren instrukzio-faseari hasiera ematea erabaki zen, bidezko zehapen-espedientea ireki aurretik, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki. Lehiaren defentsaren arloko zehapen-espedientea irekitzeko inguruabarrak dauden aurretiaz zehazteko asmoz erabaki zen informazio erreserbatua izapidetzea.

Informazio erreserbatuaren prozedura-fasearen barruan, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak informazioa eskatu zien Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzailen Elkargo Ofizialari, Bizkaiko Barne Dekoratzaille eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa



Sailari. Erakunde horiek garaiz eta taxuz bidali zuten eskatutako informazioa.

4. 2011ko irailaren 15ean, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, **GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALAREN** aurka zehapen-prozedura irekitzea erabaki zuen, lehia murrizten duten eta Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatzen dituen jardunbideengatik. Halaber, zehapen-espedienterako instruktorea eta idazkaria izendatu ziren.

Adierazitako Ebazpena 2011ko irailaren 20an jakinarazi zitzaizen interesdunei, hau da, **GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALARI** eta **LEHIAREN BATZORDE NAZIONALARI**.

5. 2011ko urriaren 18an, **GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALAREN** izenean eta haren ordezkari-lanetan ziharduen M.Z.A. jaunak sinatutako idazki bat sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan. Idazki horren bitartez, zehapen-prozeduraren itundutako amaiera egiteko jardueri hasiera ematea erabakitzeke eskatzen zuen. Idazkiari, gainera, honako konpromiso-proposamen hau erantsi zitzaion:

“Elkargoaren Estatutuen 10. artikuluan adierazitakoa argitzeko eta zabaltzeko, honako hau ezarri da esanbidez: Gobernu Batzordeak, adierazitako artikuluari jarraiki elkargoko kide egiteko egiten dizkioten eskaerak izapidetzean, lanbidean dagokion mailan jarduteko ahalmen nahikoa ematen duen titulu gisa onartuko du Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikariaren titulu ofiziala Dekorazio Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1995eko irailaren 1eko 1.464/1995 Errege



Dekretuaren bidez ezarritakoa), eta, horren ondorioz, titulu hori dutenak eskubide osoko elkargokide gisa onartuko ditu (curriculum, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren azaroaren 30eko 237/2004 Dekretuak ezarri zuen); eta, hori guztia, Hezkuntza Ministerioaren 94.3.11ko 440/1994 Errege Dekretuak ezarritako baliokidetasunean oinarrituta.

Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 10.1 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, elkargoaren web-orriaren barruan lanbide-jardueran eta horren jardunean sartzeko informazioa ematen duen atalean adierazitako irizpidea azalduko da abenduaren 22ko 25/2009 Legeak lege horri emandako idazketan”.

6. Eskaera hori onartu egin zen instruktorearen 2011ko urriaren 20ko Probidentziaren bidez. Probidentzia horrek, gainera, eten egin zuen zehapen-prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa, itundutako amaiera bukatu arte.

7. 2011ko urriaren 21ean, Lehiaren Batzorde Nazionalari igorri zitzaion konpromiso-proposamena –espedientean interesduna izaki–, bidezkotzat hartutako alegazio guztiak aurkez zitzan, baina ez da alegaziorik egin.

8. 2011ko azaroaren 2an, instruktoreak Probidentzia bat eman zuen, eta, haren bidez, aurkeztutako konpromiso-proposamena aldatzeko eskatu zion GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALARI, hots:

1. Proposatutako bi konpromisoak ezartzeko epe egoki bat finkatzeko.



2. Esanbidezko testua finkatzeko (web-orrian jasoko da) eta testu hori txertatuko den leku zehatza adierazteko.

9. 2011ko azaroaren 22an, GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALAK bigarren konpromiso-proposamena (Gobernu Batzordeak 2011ko azaroaren 8an onartutakoa) aurkeztu zion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari:

“Elkargoaren Estatutuen 10. artikuluan adierazitakoa argitzeko eta zabaltzeko, honako hau ezarri da esanbidez: Gobernu Batzordeak, adierazitako artikuluari jarraiki elkargoko kide egiteko egiten dizkioten eskaerak izapidetzean, lanbidean dagokion mailan jarduteko ahalmen nahikoa ematen duen titulu gisa onartuko du Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikariaren titulu ofiziala Dekorazio Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1995eko irailaren 1eko 1.464/1995 Errege Dekretuaren bidez ezarritakoa), eta, horren ondorioz, titulu hori dutenak eskubide osoko elkargokide gisa onartuko ditu (curriculumak, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren azaroaren 30eko 237/2004 Dekretuak ezarri zuen); eta, hori guztia, Hezkuntza Ministerioaren 94.3.11ko 440/1994 Errege Dekretuak ezarritako baliokidetasunean oinarrituta. Konpromiso hori Estatutuei jarraiki ezarritako moduan aurkezten diren eskaera guztietan aplikatuko da, lege onartutako baliabideetako edozeinen bidez Elkargoko bulegoetan sartu izana jasota geratzen denetik aurrera.

Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 10.1 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, elkargoaren web-orriaren barruan lanbide-jardueran eta horren jardunean sartzeko informazioa ematen duen atalean adierazitako irizpidea azalduko da abenduaren 22ko 25/2009 Legeak lege horri emandako



idazketan, eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikariaren titulua (Dekorazio Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan) hartuko da barnean. Titulu hori “Elkargokide izateko titulazio ofizial onargarriak” epigrafean adierazita dago, “Elkargokide izateko baldintzak” atalaren barruan, eta, bertara iristeko, “Alta-eskaera” hautatu behar da web-orriaren sarrerako pantailan dagoen “Leihatila bakarra” menuan. Konpromiso hori itundutako amaieraren espedientearen azken ebazpena eman eta hamabost egun naturaleko epean beteko da; nolana ere, oro har, orria lehenago ere eskuragarri egon daiteke”.

10. 2011ko azaroaren 22an, Lehiaren Batzorde Nazionalari igorri zitzaion konpromiso-proposamena –zehapen-prozeduran interesduna izaki–, bidezkotzat hartutako alegazio guztiak aurkez zitzan, baina ez da alegaziorik jaso.

11. 2011ko azaroaren 30ean, zehapen-espedientearen instruktoreak Ebazpen Proposamena eman zuen, eta, bertan adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzailen Elkargo Ofizialak aurkeztutako konpromisoek ikusitako lehia-arazoak konpontzen zituzten. Hori dela-eta, aurkeztutako konpromisoak onartuko zituen ebazpen bat ematea eta itundutako amaiera bidez zehapen-prozedurari amaiera ematea proposatu zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari.

12. Itundutako amaieraren ebazpenerako proposamen hori 2011ko abenduaren 2an jaso zuen Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak.

13. 2012ko maiatzaren 9an, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren Osoko Bilkurak gai horri buruzko epaitza eman du.



14. Honako hauek dira interesdunak:

- Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzzaileen Elkargo Ofiziala.
- Lehiaren Batzorde Nazionala.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

15. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 52. artikulua ezartzen duenez, “Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek konpromiso batzuk hartzea proposatzen badute, eta horien bidez espedientea irekitzea eragin duten jokaerek lehiari zituzten ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar beste bermatzen bada. Konpromiso horiek lotesleak izango dira eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak. Prozedura ezin izango da artikulua honetan zehazten den moduan amaitu, 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero”.

Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 52. artikulua garatuz, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onartutako Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 39. artikulua ezartzen du Ikerketen Zuzendaritzak, proposatutako txostena aurkeztu aurreko edozein unetan eta debekatutako jokabideak izan dituztenek proposatuta, debekatutako akordio eta jardunbideen inguruko zehapen-prozedura bat itunduta amaitzeko jardueren hasiera erabaki ahal izango duela. Itundutako amaiera hasteari buruzko erabaki hori interesdunei jakinaraziko zaie. Halaber, prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa itundutako amaierara arte etenda geratu den adieraziko zaie.



Ustezko arau-hausleek Ikerketen Zuzendaritzari aurkeztuko diote konpromiso-proposamena, Zuzendaritza horrek itundutako amaiera hasteko erabakian finkatzen duen epean. Epe hori, edonola ere, hiru hilabetekoa izango da gehienez. Proposamen hori Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari eta interesdunei helaraziko zaie, bidezkoz hartzen dituzten alegazio guztiak egin ahal izan ditzaten.

Ondoren, Ikerketen Zuzendaritzak itundutako amaieraren proposamena aurkeztuko dio Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari, proposamena hartu eta prozedurari amaiera emango dion ebazpenean txerta dezan. Itundutako amaieraren proposamena jaso ondoren, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak aukera izango du:

- a) Zehapen-espedientea itundutako amaiera bidez ebazteko (aurkeztutako konpromisoak egokitzat hartuta).
- b) Aurkeztutako konpromisoek espedientearen xede diren jokabideek lehiari izandako ondorioak behar bezala konpontzen ez dituztela, edota interes publikoa behar bezala bermatzen ez dutela ebazteko. Kasu horretan, epe bat eman ahal izango du, ustezko arau-hausleek Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari ikusitako arazoak konponduko dituzten konpromiso berriak aurkez diezazkioten. Epe hori igaro ondoren ustezko arau-hausleek konpromiso berririk aurkeztu ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak zehapen-prozedurarekin jarraitzeko eskatuko dio Ikerketen Zuzendaritzari.

16. Lehiaren Defentsari buruzko legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, Lege horretan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere funtzio, administrazio-ahalmen eta prozedurei



buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.

17. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak ezarri zituen Dekretua aldatu zuen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuenak), alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira.

18. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren Osoko Bilkura bat dator aztergai dugun itundutako amaieraren ebazpenerako proposamenarekin. Izan ere, bat dator Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuarekin, Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzailen Elkargo Ofizialak aurkeztutako konpromisoek (Aurrekarietan agertzen diren eta Eranskinean txertatu diren konpromisoek, alegia) zehapen-prozedura irekitzeko ebazpenean adierazitako lehia-arazoak konpontzen dituztela dioenean (horren funtsak ondoren azalduko ditugu).

19. Profesionalen elkargoen garrantzi konstituzionala dute. Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua identifikatu eta aintzatetsi egiten ditu, eta haien egitura-ardatza ezartzen du: elkargoen barne-egituraren eta funtzionamenduaren izaera demokratikoa. Hori oinarri hartuta, Konstituzioak dio legegileak arautu behar dituela elkargoen araubide juridikoaren berezko berezitasunak eta tituludun lanbideen jarduna.



Konstituzio Auzitegiak Administrazio Korporatiboaren barruan sartzen ditu profesionalen elkargoak, eta honela definitzen ditu: elkarte sozialak dira, zenbait interes sozialen arabera –batez ere interes profesionalak– legeari jarraiki eratu direnak. Nortasun juridiko eta publikoa dute, eta sarritan ezinbestekoa izaten da horietako kide izatea.

Profesionalen elkargoak korporazio antzeko batzuk dira, Estatuak aintzatetsiak eta, helburu hertsiki pribatuak lortzera ez ezik (horretarako nahikoa izango litzateke elkarte batekin –Espainiako Konstituzioaren 22. artikulua–), lanbidearen jarduna bermatzera ere bideratuta daudenak.

Elkargoek lanbidearen jardunaren eraginkortasuna eta jardun horretan behar den erantzukizuna ziurtatuko dituzten arau edo erregeletara egokituta egon beharko dute (Estatuak bermatuta du hori, gaitzen duen tituluaren bidez).

Konstituzioari jarraiki, legegileak finkatu beharko ditu askatasunaren printzipio orokorretik kanpo geratu behar duten lanbideak. Horretarako, adierazitako helburuak lortzeko lanbide horietako zeinetan beharko den profesionalen elkargo bateko kide izatea balioetsi beharko du, baita, hala badagokio, lanbidean jarduteko aurretiko titulazioa izateko eskakizunari nolako garrantzia eman behar zaion ere. (Konstituzio Auzitegiaren 194/1998 epaia eta Konstituzio Auzitegiaren 76/2003 epaia, apirilaren 23koa, FJ 4.)

Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegiak dioenez, lanbide bat elkargokoa dela esateko, eta elkargoko kide egiteko baldintzak ezartzeko, Konstituzioaren ikuspegitik ezinbestekoa izango da eraginpean egon daitezkeen interes orokorrak egotea edo, beste modu batean esanda, beharrezkoa izango da elkargoak konstituzioaren ikuspegitik garrantzitsuak diren xede publikoak lortzea. Erabaki hori zilegi izateko, elkargoak benetan bete beharko ditu elkargoko profesionalak emango dituzten zerbitzuen hartzaileen interesak zaintzeko zereginak, baita jarduera profesional zehatzaren



eta Konstituzioaren bitartez babestutako zenbait eskubide, balio eta ondasunen artean dagoen erlazioa zaintzeko zeregina ere.

20. Legegileak, Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua ematen dion gaikuntza erabiltzean, ahalik eta neurririk txikienean eta behar bezala justifikatuta murriztuko ditu Espainiako Konstituzioaren 22. artikuluan aldarrikatutako elkartzeko eskubidea eta lanbide eta ogibidea askatasun osoz aukeratzeko eskubidea. Horrela, beraz, kasu jakin bakoitzean profesionalen elkargo baten sorkuntza erabakitzean, kontuan izan behar da elkargo horrek adierazitako oinarrizko eskubideetan eragina duenez gero interes publiko bati erantzun beharrak justifikatzen duenean baino ez dela konstituzioari jarraiki zilegi izango. Horrela bada, interes orokorrak salbuespen kasuetan baino ez du justifikatuko lanbide batean titulazio jakin batekin bakarrik jardun ahal izatea.

Tituludun lanbideak arautuko dituen Legeak honako alderdi hauek arautu beharko ditu: a) tituludun lanbidea bera, hau da, jarduteko titulu jakin batzuk eskatzen dituen lanbidea, b) jarduteko beharrezkoak diren baldintzak eta tituluak, eta c) edukia edo lanbidearen berezko jarduera formalak.

Izan ere, Konstituzioaren 1.1 eta 10.1 artikuluek bermatzen duten askatasunaren printzipio orokorrak baimena ematen die herritarrei legeak debekatzen ez dituen jarduera guztiak edo betekizun edo baldintza jakin batzuk eskatzen ez dituzten jarduera guztiak egiteko. Gainera, gure Zuzenbideko Estatuaren funtsezko berme den lege-erreserbaren printzipioaren azken esanahia honako hau da: herritarren askatasun-eremuak haien ordezkarien borondateari jarraiki arautuko direla ziurtatzea. Eremu horiek gobernuaren jardunetik eta, horren ondorioz, haren berezko arau-produktuetatik (erregelamenduetatik) kanpo geratu behar dute.

21. Lege-erreserba ezin zaie aplikatu Konstituzioa egin baino lehen sortu ziren profesionalen elkargoei. Hori dela-eta, profesionalen



elkargo bat sortzeko ez da beharrezkoa ondoren legearen bidez berrestea gaitzen duen titulu juridikora egokitzeko (Espainiako Konstituzioaren 36. art.). Hortaz, Espainiako Konstituzioa indarrean sartu aurretik sortu ziren profesionalen elkargoetan, ez da interes orokorraren betetzeari buruzko judiziorik egin erakunde berri hori sortzeko.

22. Profesionalen Elkargoei buruzko Legeak lehiaren defentsaren eremura bideratzen du elkargoen jarduna, profesionalen elkargoen akordio, erabaki eta gomendioek Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen mugak bete beharko dituztela esaten baitu. (Profesionalen Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 2.4 artikulua).

Profesionalen elkargoen jarduna lehiaren defentsari buruzko araudira egokitzeari dagokionez, oso adierazgarria da Auzitegi Gorenaren 2010eko apirilaren 26ko epaia:

“Hain zuzen ere, lehenengoari dagokionez, Sala honek sarritan adierazi du Administrazio publikoak, printzipioz, Lehiaren Defentsari buruzko Legea eta, oro har, lehia askearen eremu desberdinak bermatzen dituen legeria bete behar dituela. Horixe adierazi genuen, esaterako, 2007ko ekainaren 19ko epaian (RC 9.449/2004):

[...] Salbuespen partzialak dio Administrazio publikoen jardunak, administrazio publiko gisa jarduten dutenean, ez duela lehiari buruzko zuzenbidea bete behar, baina adierazi egin behar da guztiz bete behar dutela aipatutako erregulazio hori, eta ezin izango zaiola eragozpenik ipini Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 10. artikuluan adierazitakoa aipatuz, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak dioen bezala. Hain zuzen ere, agindu horrek agente ekonomikoak aipatu arren, ez da ulertu behar zuzenbide pribatuaren mendeko agenteek bakarrik jaso ditzaketela horren arabera zehapenak, eta administrazio-zuzenbidearen mendeko agenteek ezin dutela horrelako zehapenik jaso. Aldiz, merkatuan diharduen subjektu orori egindako aipamena da, baita administrazio publikoek eurek edo horrelako erakunde eta sozietateek administrazio-zuzenbideari nolabait lotuta dihardutenean ere. Ildo horretan, dagoeneko aipatu den Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen (RCL 1995, 1485, 1948) seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera sozietate demandatuak publizitate eta lehia printzipioak bete behar dituen arren, eta bere jarduna zati batean administrazio-zuzenbideari lotuta ulertu behar den arren,



hori ez da oztopoa izango bere kanpoko jarduera epaitu ahal izateko, nolana ere, lehiaren defentsari buruzko araudiaren alorrean.

[...] Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2. artikuluan ezarritako klausulari dagokionez, Sala honek ere iritzia eman du, honako hau ezarriz: klausula ezin da parekatu administrazio publiko baten edo erakunde publiko baten onerako jarduteko legezko gaikuntza edo aurreikuspen batekin. Hori eginez gero, salbuespen orokorra ezarriko litzateke lehiari buruzko zuzenbidea betetzeari dagokionez, administrazio publikoek edo botere publikoa duten erakundeek, printzipioz, Legeak emandako eskumenak erabiliz bakarrik baitihardute. Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2. artikuluko klausula legezko aurreikuspen moduan ulertu behar da, berez Legearen 1. artikuluko debekuen barruan egongo litzatekeen jokabide bat baimentzen duen legezko aurreikuspen moduan, hain zuzen ere. Aurrerago aztertuko dugu hori.

Profesionalen elkargoak, beraz, Lehiaren Defentsari buruzko Legeari eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiari —Lehiaren Batzorde Nazionala, gaur egun— lotuta daude erabat, betetzen dituzten funtzioak eta horien izaera (publikoa edo pribatua) edozein izanik ere. Gainerakoan, argi dago elkargoetan bildutako lanbideak antolatzeke eta horien deontologia arautzeke funtzioa, baita, zehazki, ordainsariei buruzko irizpideak ezartzeko funtzioa ere, lotesleak izango direnak, izaera publiko ukalezina duen ahalmena direla, eta hori eduki ezean ezin izango litzatekeela nahitaezkoa izan elkargoentzat. “

23. Nahitaez profesionalen elkargo bati atxikitzeak eta horretarako titulu akademikoa izan beharrak jarduera-erreserba eragiten du, eta hori salbuespena da lanbide edo ogibide batean askatasunez jarduteko aukeran. Horrela, beraz, titulazio jakin bat dutenek eskusiboki erreserbatzen dute lanbide zehatz batean jarduteko aukera.

Titulazio jakin bat dutenen jarduera-erreserba gertatzen da, eta, gainera, elkargoko kide izan behar denez gero, elkargoa (profesionalen nahitaezko taldea dena) nagusitasunezko egoeran egongo da erreferentziazko merkatuan, elkargoari atxikitzean garatu ahal izango baita lanbidea merkatuan.

Horrez gain, Profesionalen Elkargoei buruzko Euskal Legearen 26.2 artikuluari jarraiki, lurralde-eremu berean ezin da lanbide bereko profesionalen elkargo bat baino gehiago egon (tituludun lanbideei



eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea). Horrela bada, nagusitasunezko egoera horren adierazgarri, elkargoak erreferentziazko merkatuan sartzeko giltza du, baita hori eskatzen duten eta egoitza bakarra edo nagusia bere jurisdikzio-eremuan duten tituludunak elkargoan sartzeko betebeharra ere (*ex lege*). Beraz, profesionalen elkargoak merkatua ixteko eta profesionalen eskaintza murrizteko aukera du.

Profesionalen Elkargoei buruzko Estatuko Legeak elkargoaren funtzioak betetzeko irizpideak ezartzen ditu elkargoko kideak atxikitzeari dagokionez. Hona hemen:

- a. Eskatutako titulazioa duen eta estatutuetan adierazitako baldintzak betetzen dituen pertsona orok profesionalen elkargoko kide izateko eskubidea izango du (3. artikulua).
- b. Elkargoetan bildutako lanbideetan jarduteko aukera eta jarduna bera tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioari lotuta egongo dira (15. artikulua).
- c. Elkargoetan bildutako lanbideetan jardun ahal izateko, ezinbestekoa izango da dagokion elkargoan sartzea, elkargoa sortzeko legeak, maila bereko ondorengo arauen batek edo, hala badagokio, erregelamendu-xedapenak eta estatutuek hori ezartzen dutenean.
- d. Profesionalen elkargoek nahitaez sartuko dituzte eskatzen duten pertsonak elkargoan, lanbide horretan jarduteko legez eskatzen den titulua badutela eta aplikatu beharreko xedapenetan eta estatutuetan oro har eskatzen diren gainerako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.
- e. Lanbidea lurraldekako elkargoen arabera antolatzen denean, nahikoa izango da horietako batean sartzea, hau da, egoitza profesional bakarra edo nagusia duen lurraldeko elkargoan.



24. 2006. urtean Zerbitzuen Erkidegoko Zuzentaraua onartzean, eta 2009an Zuzentarau hori ordenamendu juridiko nazionalera eramatean, lanbide-zerbitzuak arautzeko esparru bat sortu nahi izan zen, eraginpeko merkatuetako lehia librearen defentsarekin bat etorriko zen esparru bat, alegia. Araudiaren bidez egindako erreforma gauzatzeko, beharrezkoa da sorreran eta egikaritzean esku hartzen duten erakundeek behar bezala aplikatzea, arauetan jasotako printzipioen eta horien aplikazioaren artean tirabirarik sor ez dadin¹.

Profesionalen elkargo jakin batzuei eta horien funtzionamenduari dagokienez, Lehiaren Batzorde Nazionalak berak egiaztatu du “lanbide-jardueretan sartzeko eta jarduteko oztopo ugari daudela oraindik, eta oztopo horiek lanbide-zerbitzuak askatasunez ematea eragozten edo zailtzen dutela”. Era berean, egiaztatu du “Profesionalen Elkargoei buruzko autonomia-erkidegoetako araudiak ez daudela berriaz egokituta Estatuko oinarrizko legerian aurreikusitako erreformetara, eta horrek merkatu nazionalaren banaketa geografikoa areagotu eta lehiak lurraldeetan dituen ahalmenak murrizten ditu”. Azkenik, nahitaez elkargoko kide izateko salbuespenezko araubideari lotuta geratu behar duten lanbideak eta jarduera-erreserbak mugatzea gomendatu dio Gobernuari. Gogorarazi duenez, nahitaez elkargoko kidea izan beharra lehiarako murrizketa garrantzitsua da, “eta ezarri behar den kasu bakoitzean neurri horren premia, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza justifikatu beharko da, behar bezala arrazoituta”. (Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena, 2012ko maiatzekoa: “Profesionalen elkargoak Zerbitzuen Zuzentaruaren transposizioaren ondoren”).

25. Dekoratzailen Elkargo Nazionala 893/1972 Dekretuaren bitartez sortu zen, dituen helburuak lortzeko eta honako ahalmen orokor hauek baliatzeko nortasun juridiko propioa duen zuzenbide

¹ 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barnermerkatuko zerbitzuei buruzkoa (2006.12.27ko L 376 Egunkari Ofiziala); 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, hainbat lege zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko aldatzen dituen (Omnibus Legea); eta 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoa (Aterki Legea).



publikoko korporazio gisa: A) Dekoratzaillearen lanbidea ofizialki, modu eskusiboan eta guztiz ordezkatzea. B) Eskubide eta betebeharrak profesionalak betetzen direla zaintzea, eskubideak baliatzeko beharrezko neurriak hartuz eta betebeharren inguruko bidezko kontrola eginez. C) Elkargoko kideen Gizarte Segurantzaren inguruko beharrezko kudeaketak egitea. D) Lanbideari buruzko kultura-jarduerak antolatu eta garatzea, neurri handiagoan hobetzeko. E) Administrazio publikoari lanbidearekin zerikusia duen informazioa, proposamenak eta lankidetzak eskaintzea. F) Deontologia profesionala betetzen den zaintzea, elkargoen inguruko diziplina-ahalmenak erabiliz eta hutsegiteak Erregelamenduan adierazitako zuzenketekin zehatuz. G) Elkargoko kideak ordezkatzeko agintaritzak eta erakunde publiko ororen aurrean, legean aurreikusitakoaren arabera.

26. Konstituzioa onartu eta indarrean jartzearen, Euskal Autonomia Erkidegoa eratzearen (Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoa) eta azken horrek Profesionalen Elkargoei buruzko eskumenak bere gain hartzearen ondorioz, Eusko Legebiltzarrak tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legea onartu zuen.

378/1998 Dekretuaren bitartez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Dekoratzaillearen Elkargoak sortu ziren, Dekoratzaillearen Elkargo Nazionaletik bananduta. Hiru lurralde historikoetako dekoratzaillearen elkargoak eratzeko Dekretu horren 2. artikuluari jarraiki, Gipuzkoako Lurralde Historikoa izango da Gipuzkoako Dekoratzaillearen Elkargoaren jardura-eremua. Gipuzkoako Dekoratzaillearen Elkargo bakarra dago, eta lurralde-eremu berean ezin da lanbide bereko profesionalen elkargo bat baino gehiago egon (Profesionalen Elkargoei buruzko Euskal Legearen 26.2 artikulua).

27. Dekoratzaillearen Elkargo Nazionala sortzeko arauari jarraiki (893/1972 Dekretua), dekoratzaillearen lanbidean jarduteko



ezinbestekoa izango da Dekoratzailen Elkargoko kide izatea. Dekoratzailen Elkargoan sartzeko prozesua Elkargoak berak egin beharko du, dekoratzailen titulua dutela egiaztatzen duten pertsonak eskatuta.

Horrela bada, bi oztopo daude dekoratzailearen lanbidean jardun ahal izateko: 1) Hezkuntza Ministerioak emandako dekoratzailearen titulua izan behar da. 2) Profesionalen elkargoari atxikita egon beharra dago nahitaez.

28. Profesionalen elkargoak sarrera-eskaria egiten duten guztiak onartu behar ditu derrigorrez, baina eskari-egileek, lehenago, kasuan kasuko lanbidean jarduteko legez eskatzen zaien titulua egiaztatu beharko dute, eta bete behar dituzten estatutu eta xedapenetan oro har eskatzen zaizkien beste baldintzak ere bete beharko dituzte (EAEko Profesionalen Elkargoei buruzko 18/1997 Legearen 39. artikulua).

29. Euskal Autonomia Erkidegoan dekoratzailearen lanbidea lurralde-historiko bakoitzeko elkargoen bitartez antolatu denez gero, nahikoa izango da horietako batean sartzea (hau da, egoitza profesional bakarra edo nagusia duen lurraldeko elkargoan sartzea) lurralde osoan jardun ahal izateko, eta hori bat dator Profesionalen Elkargoei buruzko Estatuko Legearen 3.3 artikuluan xedatutakoarekin (bertan adierazten denez, lanbide bat lurraldekako elkargoen arabera antolatzen denean, nahikoa izango da horietako batean sartzea Estatuko lurralde osoan jardun ahal izateko).

30. Aurreko guztia kontuan hartuta, esan daiteke Gipuzkoako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak nagusitasunezko egoera duela dekorazio-zerbitzuak emateko Gipuzkoako merkatuan, egoitza profesional bakarra edo nagusia lurralde historiko horretan ezarriko duten tituludunei dagokienez.



Nagusitasunezko egoera horrek Dekoratzailen Elkargo Nazionala sortzeko arauan (893/1972 Dekretuan) du jatorria. Bertatik eratorri da, banantzearen ondorioz, Gipuzkoako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofiziala, eta Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2.3 artikulua bitartez dago lotuta lehiaren defentsari buruzko araudiaren eremuan.

31. Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzailen Elkargo Ofizialaren Estatutuek I. TITULUKO 3. puntuan ezartzen dutenez, "barnealdean diseinuko eta dekorazioko profesionalak bilduko ditu bere eremuan, lanbide tituludun eta kolegiatu gisa, indarrean dagoen legeriak esleitutako lanbide-ahalmen eta lanbide-eskumenekin".

II. TITULUKO 9. puntuak, berriz, honako hau dio: "ezinbesteko betekizuna izango da elkargoko kide egitea, beste lege-xedapen batzuetan beste lurralde-eremu batzuetako elkargo batean dauden profesionalak dagokienez ezarritako jardun-eskubideak eta eremu horietan lanbideko ordezkari-erakundeekin ezartzen diren akordioak aparte utzi gabe".

Bestalde, II. TITULUKO 10. puntuak elkargokide gisa onartzeko aukera arautzen du. Bertan adierazten denez, Elkargoko kide izan nahi duten profesionalak idatziz eskatu beharko diote Gobernu Batzordeari, eta, eskaerarekin batera, lanbidean jarduteko gaitasun nahikoa ematen duen titulu bat izatearen justifikazio askietsia aurkeztu beharko dute, besteak beste. Gobernu Batzordeak, eskaera aztertu ondoren, onartuta dagoen ala ez jakinaraziko dio idatziz eskatzaileari. Halaber, hala badagokio, Batzorde Nagusiak ezarritakoari jarraiki ordaindu beharreko sarrera-kuotaren berri emango dio, eta eskatzaileak ezarrita dauden errekursoak formulatu ahal izango ditu jakinarazten zaion erabakiaren aurka.

32. Elkargokide izateko eskatutako titulazioari dagokionez, honako titulu hauek gaitzen dute dekoratzailearen lanbidean jarduteko:



- Arte aplikatuetako graduatuaren titulua, uztailaren 24ko 2127/1963 Dekretuak araututako ikasketei eta martxoaren 18ko 799/1984 eta maiatzaren 9ko 942/1986 Errege Dekretuen babespean garatutako plan esperimentalei dagokiena.
- Arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan, irailaren 1eko 1464/1995 Errege Dekretuak sortua.
- Diseinuko titulua, barnealdean espezialitatean, irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak ezarria²
- Diseinuko Graduatuaren Titulua, barnealdean diseinuaren espezialitatean, maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretuak arautua.

Zerrenda hori gorabehera, Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzailen Elkargo Ofizialak ez du elkargoko kide egin irailaren 1eko 1464/1995 Errege Dekretuaren bidez sortutako arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua (dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan) zuen ezein dekoratzaile.

Espedientean bildutako datuetatik (2011ko ekainaren 24koetatik) ondoriozta daitekeenez, Elkargo horretako 186 kideetako batek irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak ezarritako diseinuko goi-mailako titulua du, barnealdean espezialitatean (unibertsitateko diplomaturaren baliokidea), eta gainerako 185ek, berriz, arte aplikatuetako graduatuaren titulua dute (uztailaren 24ko 2127/1963 Dekretuak araututako ikasketei eta martxoaren 18ko 799/1984 eta maiatzaren 9ko 942/1986 Errege Dekretuen babespean garatutako plan esperimentalei dagokiena).

² Hezkuntza Ministerioaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Diseinu Graduko goi-mailako ikasketa artistikoen oinarriko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretuak laugarren Xedapen Gehigarrian ezartzen duenez, Diseinuko Titulua lortzeko irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak araututako ikasketa-plana iraungitzen hasiko da 2010-2011 ikasturtean.



33. Arte aplikatuetako graduatuaren titulua (dekorazioaren eta barnealdean diseinuaren espezialitateetan) arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluarekin (dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan) parekatuta dago. Izan ere, antzinako dekoratzaileen eta barne-diseinatzaileen eta gaur egungo lanen proiektuetako eta zuzendaritzako teknikarien arteko (hau da, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren aurreko arte aplikatuetako eta lanbide artistikoetako, zeramikako eta kultura-ondasunak zaindu eta zaharberritzeko tituluen eta lege horretan ezarritako tituluen arteko) baliokidetasunak ezartzen dituen martxoaren 11ko 440/1994 Errege Dekretuak 4. artikuluan ezartzen duenez, arte aplikatuetako graduatuaren titulua (uztailaren 24ko 2127/1963 Dekretuak araututako ikasketei eta martxoaren 18ko 799/1984 eta maiatzaren 9ko 942/1986 Errege Dekretuen babespean garatutako plan esperimentalei dagokiena) aipatutako Lege Organikoaren 35.2 artikuluan adierazitako goi-mailako teknikariaren tituluen baliokidetzat hartzen da ondorio guztietarako.

Halaber, 1999ko maiatzaren 14ko Agindu bidez, arte aplikatuetako eta lanbide artistikoetako, eta zeramikako ikasketei dagokien titulazioen espezialitateen eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluen arteko elkarrekotasuna ezarri zen. Horrela, beraz, Agindu horren I. Eranskinean agertzen denez, arte aplikatuetako graduatuaren titulua (dekorazioaren eta barnealdean diseinuaren espezialitateetan) arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluarekin (dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan) parekatuta dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, abenduaren 29ko 1244/2000 Epaian, arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua (altzarien, arkitektura iragankorraren, erakusleihopaintetaren, lorategi-elementuen eta proiektuen eta



zuzendaritzaren espezialitateetan) proiektu bat lantzeko, bidezko udal-lizentzia eskatzeko eta, beraz, Bizkaiko Dekoratzailen Elkargoko jarduneko kide izateko gaitzen duen titulutzat hartu zuen.

Azkenik, Bizkaiko eta Arabako Barne Diseinatzaileen eta Dekoratzailen Elkargo Ofizialek elkargoko kide egiteko aukera ematen dute titulazio hori –besteak beste– egiaztatuz gero (ikus, ildo horretan, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren Ebazpena –01/2010 espedientea, Arabako Dekoratzailen eta Barne Diseinatzaileen Elkargo Ofiziala–, eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren “Profesionalen elkargoak Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondoren” txostena –<http://www.cncompetencia.es/>–, 54. or.).

34. Dekoratzailen elkargoetan aplikatu beharreko Estatuko eta Autonomia Erkidegoko araudia kontuan hartuta, eta araudi horretan komenigarria izan daitekeen aldaketa baten zain, profesionalen elkargoak zehapen-prozeduraren itundutako amaieraren proposamenaren bitartez azaldutako konpromisoak (ebazpen honi Eranskin gisa erantsiak) aztertu dira. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak dioenez, konpromiso horiek egokiak dira prozeduraren xede diren lehia-arazoak konpontzeko.

Izan ere, konpromiso horien bidez, Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzailen Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzordeak Elkargoko Estatutuen 10. artikulua argitu eta zabaldu du. Bertan adierazten denez, Elkargoko kide izan nahi duten profesionalak idatziz eskatu beharko diote Gobernu Batzordeari, eta, eskaerarekin batera, lanbidean jarduteko gaitasun nahikoa ematen duen titulu bat izatearen justifikazio askietsia aurkeztu beharko dute.

Horrela, beraz, lanbidean jarduteko gaitasun nahikoa ematen duen titulutzat hartzen da 1464/1995 Errege Dekretuaren bidez ezarritako arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren titulu



ofiziala (dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan). Horren ondorioz, Estatutuen arabera ezarritako moduan aurkezten diren eta titulazio horretan oinarrituta dauden eskaerekin, eskubide osoko elkargokide gisa onartu beharko dira eskatzaileak, eta dekoratzailearen lanbidean jarduteko gaitasuna izango dute.

Hori dela-eta, adierazitako profesionalen elkargoan sartzeko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan dekorazio-zerbitzuak emateko aukera emango zaie Estatutuetan aurreikusitako moduan elkargoko kide egiteko eskatzen duten eta, besteak beste, aurreko paragrafoan adierazitako titulazioa dutela dokumentu bidez egiaztatzen duten pertsoneri.

Aurrekoa publiko egiteko, Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 10.1 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta (abenduaren 22ko 25/2009 Legeak lege horri emandako idazketan), Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzzaileen Elkargo Ofizialaren web-orriaren barruan lanbide-jardueran eta horren jardunean sartzeko informazioa ematen duen atala erabiliko da, eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikariaren titulua (Dekorazio Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan) hartuko da barnean. Titulu hori “Elkargokide izateko titulazio ofizial onargarriak” epigrafean adierazita dago, “Elkargokide izateko baldintzak” atalaren barruan, eta, bertara iristeko, “Alta-eskaera” hautatu behar da web-orriaren sarrerako pantailan dagoen “Leihatila bakarra” menuan.

Profesionalen elkargoko Gobernu Batzordeak adierazitakoaren arabera, konpromiso hori zehapen-prozedura itundutako amaiera bidez azken ebazpena eman eta hamabost egun naturaleko epean beteko da; nolana ere, oro har, orria lehenago ere eskuragarri egon daiteke.

Adierazitako Profesionalen Elkargoaren web-orriko informazioaren eskuragarritasunari dagokionez, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egiaztatu du orri horretan elkargoko kide egiteko onar daitezkeen titulazio ofizialen esanbidezko zerrenda bat bildu dela,



eta, horien artean, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikariaren titulua (Dekorazio Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan) dagoela (Hezkuntza Ministerioaren 1464/1995 Errege Dekretua, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren azaroaren 30eko 237/2004 Dekretuaren arabera curriculum). (Ikus eraginpean hartutako Elkargoaren web-orria: <https://www.didegipuzkoa.com/condiciones-colegiarse#titulos-aceptados>).

35. 261/2008 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 39.7 artikuluari jarraiki, itundutako amaieraren ebazpen batean bildutako konpromisoak eta betebeharrak ez betetzea arau-hauste oso larritzat hartuko da, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 64.4.c artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, hertsatzeko isunak ezarri eta, hala badagokio, zehapen-espeditente bat ireki ahal izango da Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1., 2. edo 3. artikulua urratzeagatik.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honek, arestian azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DU

LEHENENGOA.- Zehapen-prozedura honen itundutako amaiera loteslea erabakitzea, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, Gipuzkoako Dekoratzailen eta Barne Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak proposatutako konpromisoekin (I. Eranskina), eta Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onartzen duen 261/2008 Errege Dekretuaren 39.7 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzailen Elkargo Ofizialak I. Eranskineko Konpromiso Proposamenean



bildutako betebeharrak bete beharko dituela erabakitzea, itundutako amaierari buruzko erabakia behar bezala beteko dela ziurtatzeko.

HIRUGARRENA.- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari itundutako amaierari buruzko erabakia eta, beraz, lortutako konpromisoak eta ezarritako betebeharrak zaintzeko ardura ematea.

Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen/Dekoratzailen Elkargo Ofizialari eta Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaie. Adieraziko zaie, halaber, ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela, eta haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan jarri beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 9a

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA

KIDEA

KIDEA



ERANSKINA

GIPUZKOAKO BARNE DISEINATZAILEEN/DEKORATZAILEEN ELKARGO OFIZIALAREN KONPROMISO PROPOSAMENA

1- Elkargoaren Estatutuen 10. artikuluan adierazitakoa argitzeko eta zabaltzeko, honako hau ezarri da esanbidez: Gobernu Batzordeak, adierazitako artikuluari jarraiki elkargoko kide egiteko egiten dizkioten eskaerak izapidetzean, lanbidean dagokion mailan jarduteko ahalmen nahikoa ematen duen titulu gisa onartuko du Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikariaren titulu ofiziala Dekorazio Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1995eko irailaren 1eko 1.464/1995 Errege Dekretuaren bidez ezarritakoa), eta, horren ondorioz, titulu hori dutenak eskubide osoko elkargokide gisa onartzeko aukera onartuko du (curriculumak, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren azaroaren 30eko 237/2004 Dekretuak ezarri zuen); eta, hori guztia, Hezkuntza Ministerioaren 94.3.11ko 440/1994 Errege Dekretuak ezarritako baliokidetasunean oinarrituta.

Konpromiso hori Estatutuei jarraiki ezarritako moduan aurkezten diren eskaera guztietan aplikatuko da, lege onartutako baliabideetako edozeinen bidez Elkargoko bulegoetan sartu izana jasota geratzen denetik aurrera.

2- Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 10.1 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, elkargoaren web-orriaren barruan lanbide-jardueran eta horren jardunean sartzeko informazioa ematen duen atalean adierazitako irizpidea azalduko da abenduaren 22ko 25/2009 Legeak lege horri emandako idazketan, eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikariaren titulua (Dekorazio Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan) hartuko da barnean. Titulu hori “Elkargokide izateko titulazio ofizial onargarriak” epigrafean adierazita dago, “Elkargokide izateko baldintzak” atalaren barruan, eta, bertara iristeko, “Alta-eskaera” hautatu behar da web-orriaren sarrerako pantailan dagoen “Leihatila bakarra” menuan.

Konpromiso hori itundutako amaieraren espedientearen azken ebazpena eman eta hamabost egun naturaleko epean beteko da; nolana ere, oro har, orria lehenago ere eskuragarri egon daiteke.